



2HI-042-12-P03-A ABALTZISKETA

TOMÁS ORALLO QUIROGAK, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE ANTOLAMENDURAKO BATZORDEAREN IDAZKARIAK

ZIURTATZEN DUT: Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen batzarrak urriaren 11n Gasteizen egin zuen 4/2012 bilkuran besteak beste erabaki hau hartu zutela, aho batez, kideen gehiengo osoa eratzen zuten bertaratutakoek:

“I.- Lurralde-antolamenduaren arloan:

I. Abaltzisketa udalerriko Hiri Antolamendurako Plan Orokorrak proposatutako Lurralde Eredua balioestea, lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legean, eta Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen eta lurralde historikoetako foru-organoen arteko harremanei buruzko Legea aldatzen duen uztailaren 16ko 5/1993 Legean ezarritakoaren arabera, honako termino hauetan:

1. INGURUNE FISIKOA.

1.a. Lurzoru urbanizaezinaren erabilerak kategorizatzea eta arautzea.

- Plan Orokorraren aldeko irizpena ematea, hark lurzoru urbanizaezinean ezartzen duen erabilera- eta eraikuntza-erregimenaren kategorizazioari eta arauketari dagokienez, pentsatzen baita haiek bat datozela EAEko Lurraldea Antolatzeko Artezpideetan ezarritako zehaztapenekin, ingurune fisikoa antolatzeaz den bezainbatean.

- Aurrekoa gorabehera, kontuan hartuta Plan Orokorrak “Babes paisajistikoko landa-zona” eta “Larraitz babesteko landa-zona” izenak ematen dizkien inguruei dagokien babes-erregimena, pentsatzen da haiek babes bereziko zonaren azpizona moduan hartu beharko liritekeela, eta izen hau izan beharko luketela: “Babes bereziko landa-zona – Babes paisajistikoa” eta “Babes bereziko landa-zona – Larraitz babestea”.

1.b. EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala

- Plan Orokorraren aldeko irizpena ematea, EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialean (Kantauriar Isurialdean) ezarritako zehaztapenei egokitzen zaielako.

2. BIZITEGI-LURZORUAREN ANTOLAMENDUA.

- **ALDEKO IRIZPENA EMATEA PLAN OROKORREAN JASOTAKO PROPOSAMENAREN ONDORIOZKO BIZITEGIRAKO LURZORU-KANTITATEARI ETA LURRALDE-EREDUARI BURUZ; IZAN ERE, PLANGINTZA BERRIAK AHALBIDETZEN DUEN 34 ETXEBIZITZA BERRIKO KAPAZITATEA BAT DATOR EAEKO LURRALDE ANTOLAMENDURAKO JARRAIBIDEETAN EZARRITAKO IRIZPIDEAK APLIKATZEAN LORTZEN DIREN EMAITZEKIN.**



II. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen lehenengo xedapen gehigarriko 3. puntuan Batzorde honi dagokionez ezarritakoaren ondorioetarako, txosten honetan jasotako baldintzak gehitu ondoren, espedientea behin betiko onetsi ahal izango da, Batzorde honen aldeko txostena jaso beharrik izan gabe.

II.- Uraren arloan:

Uraren Euskal Agentziak, 2012ko urriaren 3an, aldeko txostena egin zuen, erabaki lotesle hauek betetzeko baldintzarekin:

1. Saneamenduari eta hornidurari dagokienez, Hiri Antolamendurako Plan Orokorra behin betiko onartu aurretik, beharrezkoa izango da Gipuzkoako Ur Partzuergoaren adostasun-txosten batek ziurtatzea hornidura- eta saneamendu-sistemak aski direla eskari berriak betetzeko eta aurreikusitako garapenen ondoriozko karga berriak bildu eta tratatzeko.
2. Jabari publiko hidraulikoari edo haren zortasun-eremuari edo erabilera mugatuko eremuari eragiten dioten ekintza guztietarako eta ibilgura egin daitezkeen isurketetarako, aldeztu aurretik administrazio hidraulikoaren baimena lortu behar da; Uraren Euskal Agentziaren Ekialdeko Kantauriar Arroen Bulegoan bideratuko da baimena.

III.- Landaren eta itsasertzaren garapeneraren arloan:

Landaren eta Itsasertzaren Garapenerako Zuzendaritzak honako ohar lotesle hauek egin zituen 2012ko irailaren 18ko txostenean:

- **EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala**

Agirietan EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala zuzen izendatzea.

- **Abeltzaintzako ustiategi berrien inguruko araudiaren aplikazioa**

Etxaldeek, abeltzaintza-ustiategi intentsiboak eta abeltzaintzako nekazaritza-industriek lurzoru urbanizaezinaren mugarekiko izen beharreko gutxieneko distantzietarako buruzko 61. artikuluko 6. atalaren edukia honako dekretu honetan jasotako zehaztapenetara egokitu behar da: *"515/2009 Dekretua, irailaren 22koa, abeltzaintzako ustiategietako arau teknikoak, higieniko nahiz sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituena"*.

IV.- Kultura-ondarearen arloan:

Honako zehaztapen lotesle hauek ezarri zituen Kultura Ondarearen Zuzendaritzak 2012ko urriaren 8an emandako txostenean:

- 1.1.- Hirigintza-dokumentuak, arkeologia-presuntzioko eremuei dagokienez, Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/1990 Legeko 49. artikuluan eremu horietarako aipatutako babesa jaso behar du, 45. artikuluari buruzko aipamena kenduta.

V.- Espedienteari honako hauek egindako txostenak gehitzea (ziurtagiri honi erantsita doaz): Uraren Euskal Agentziarena (I. eranskina), Lurzoru eta Hirigintza Zuzendariarena (II. eranskina), Landaren eta Itsasertzaren Garapenerako Zuzendaritzarena (III. eranskina) eta Euskal Kultura Ondare Zuzendaritzarena (IV. eranskina)."



EUSKAL HERRIKO LURRALDE ANTOLAKETAREN BATZORDEA
COMISION DE ORDENACION DEL TERRITORIO DEL PAIS VASCO

Eta horrela jasota gera dadin, bilkura honi dagokion akta onetsi baino lehen, Gasteizen, 2012ko urriaren 15ean agiri hau egin eta sinatu dut.

IDAZKARIA



Orlans Orallo Quiroga